

STEE-EILASen ERANTZUNA KRISTAU ESKOLARI (2011-6-28)

Joan den astean *Kristau Eskolak* erantzun omen zion haur hezkuntzako lehengo zikloko lansarien murrizketak direla eta STEE-EILASek egin zion eskaerari. Eta omen esaten dugu erantzun ofizialagorik ez dugunez erantzuntzat hartu behar baitugu ikastetxeetara Kristau Eskolak bidalitako idazkia, hainbat kasutan gure sindikatuak egin zuen eskaerari atxikitzeko bere sinadura emana zutenei ere bidalia.

Zehazkiago STEE-EILASek honako hau eskatzen zion Kristau Eskolari **Zure elkartasuna konpromiso zehatzak eskatzeko** izeneko idazkian: *"Ikastetxe guztiei ESKATZEN DIEGU, soldata-murrizketen auzia behin betiko konpondu artean, Haur Hezkuntzako lehen zikloko mailetan 2010eko abendura arte aplikatutako murrizketa berberak ezar ditazatela."* Aldi berean Administrazioari eta sektoreko sindikatuei ere egiten zitzaizkien eskaerak. Guztientzat ehunka langileen atxikimendua eskuratu genuen, haur hezkuntzako lehen zikloko langileen egoeraren berri ematen zuen informazio kanpainaren ondoren.

Begi-bistakoa da *Kristau Eskolak* erantzun gabe ere erantzuten duela eta -gure ustetan- hitzarmeneko lan baldintzarik kaskarrenak dituztenentzat gehiegizko eta neurrigabeko murrizketekin jarraitzeko asmoa adierazi du. Horrela, maistrei bigarren zikloko nahiz lehen hezkuntzako bere kideek duten murrizketa baino hiru aldiz handiagoa izango dute; teknikariek eta laguntzaileek eurotan hilero bigarren hezkuntzako langileei beste kenduko diete, hurrenez hurren %30 eta %40 gutxiago kobratu arren. *Kristau Eskolak* ez du babesten murrizketarik baina ezarri egiten ditu.

Bere ezetza argudiatzeko *Kristau Eskolak* gure Webgunean nabigatu du eta gure sigla agerian uzteko asmotan edo, gure nortasun ikurretako bat gogorazten du: Eskola publikoa hezkuntza sistemaren ardatza bezala. Irakurtzen jarraitu behar zuten beherago dagoen beste ikur bat topatu arte: *"Irakaskuntzako sindikatua gara eta bertan lan egiten dugun langileen eskubideak eta lan baldintza egokiak defendatzen ditugu. Prekarietatearen kontra daramagun borrokak, enplegu egonkortasunaren aldekoak, lan banaketarako neurriek edota lan osasuna eta berdintasunaren aldekoek argi adierazten dituzte gure lehentasunak"* Harro gara gure nortasunarekin, zuzengabetasunezko egoerak saltzen dituen sindikatua, egoera horiek edozein sarean ematen direlarik. Eta horixe egin dugu haur hezkuntzako lehen zikloko langileen elkartasunaren alde egin dugun kanpaina abiadan jarri dugunean. Horretarako balio dute sindikatuek.

Eta kanpaina hori martxan jartzeko ez dugu gezurrezko daturik erabili *Kristau Eskolak* antzemanarazi nahi badu ere. Erronka egiten diogu nahi duenari gure txostenean egiazkoa ez den daturen bat topa dezala. Sindikatu honek berresten du murrizketa mahaia guztietara iritsi direla, administrazio eta zerbitzuetako langileen esparruan izan ezik; ez dugu inoiz kontrakoa esan. Gure balorazioak idatzi baino lehen administrazioarekin eta *Kristau Eskola* berarekin informazioa bildu eta kontrastatu genuen. *Kristau Eskolaren* aldetik zuzentasunezko tratatua jaso genuen. Gure aldizkarian bere azalpenak agertu ziren era zehatzean eta neurri batean konpartitzen ditugu. 0-3 zikloaren finantziarioak izan duen murrizketak ez du zerikusirik lege baten betetzearekin (soldaten murrizketarena). Lotuago dago testuinguru orokorarekin non aurrekontuen bidez mota guztietako murrizketak ezartzen diren, gastu soziala barne- dena gastu publikoa murrizteko helburuarekin. Eta horrek itunpeko irakaskuntzaren esparrua gainditu du, irakaskuntza publikora ere joz. STEE-EILASek ere salatu du behin eta berriz administrazio ezberdinekin daramaten politika hori. Familiek, ikasleek eta langileek pairatzen dituzten murrizketa horiek (azkena txanda kontratuarena) kalean ere salatu izan ditugu. Eta jarraitzeko asmoa dugu aurrerantzean ere.

Hain zuzen ere horregatik aipatzen dugu **egoeraren erantzukizuna ez dela erakunde bakarrarena**. Eta administrazioaz gain sindikatuak ere sartzan ditugu horretan baina ez Kristau eskolaren ildotik. Argi dago kolektibo horren errealitate gordina ez dutela sortu oraingo murrizketek. Hitzarmenean izan duten arreta eskasa du sorburu.

Askotan esan dugu baina behar adina aldiz errepikatuko dugu. *Kristau Eskolak* asko saiatu arren ez da ez ulertezina ez kontraesankorra guk hizkera hori (erantzunkizun konpartituak) erabilteza nahiz eta lansarien murrizketen kontuan epaitegian administrazioaren kontrako salaketarik ez jarri. Argi dago murrizketa horiek ez direla *Kristau Eskolaren* inizatiba baina txapel batekin ezin da bi buru estali. STEE-EILASek patronalak saltzen ditu auzitegian, beraiek gure lan baldintzak ezartzen dituztelako, aldi berean betetzeko ardura hartuz. Jarraitu nahi badute nahi duten bezala kontratatzen eta kanporatzen (edo ez luzatzen kontratua) inolako mugarik gabe... bere betebeharrak ere badituztela ulertu behar dute. Bestela, zertarako negoziatzen du eta sinatzen du hitzarmena? Zer negoziazio kolektiboko eredu tranpatia da hori ?

Administrazioa al da erantzule subsidiarioa? STEE-EILAS ez da sartuko eztabaida horretan, ez dagokigulako langileoi. Gure sindikatuak ez dio inori txeke zuririk emango gai honetan. Halere, zaila egiten zaigu ulertzea Hezkuntza Sailburuak erakusten duen ardugabekeria maila, ez entzunarena egiten jarraitzen duelako.

Azkenik, STEE-EILASek berresten du euskal hezkuntza sistema justuago eta ekitatiboagoaren aldeko konpromisoa. Bertan lan baldintza guztiak (ez bakarrik lansarienak) homologaturik egon beharko lirarteke.

STEE-EILAS RESPONDE A KRISTAU ESKOLA (28-6-2011)

La semana pasada *Kristau Eskola* respondió –al parecer- a la solicitud que STEE-EILAS le había hecho por escrito, en relación a las deducciones salariales aplicadas al personal de Primer Ciclo de Educación Infantil. Y decimos al parecer porque a falta de una respuesta más oficial, entendemos como tal el escrito que remitió a los centros y -en muchos casos- de manera personal a quienes habían firmado la adhesión a la petición de nuestro sindicato.

En concreto lo que STEE-EILAS solicitaba a *Kristau Eskola* través de su escrito **Tu solidaridad para pedir compromisos concretos** era: *"DEMANDAMOS a todos los centros a que -en tanto y cuanto no se resuelva de manera definitiva el conflicto de los recortes salariales- apliquen en las categorías del primer ciclo de infantil las mismas deducciones que venían aplicando hasta diciembre de 2010."* También se hacían peticiones a la administración y a los sindicatos del sector. Se recabó la firma de apoyo a estas reivindicaciones de varios cientos de compañeros y compañeras en el contexto de una campaña informativa sobre la situación del personal del primer ciclo de educación infantil.

Es evidente que *Kristau Eskola* sin responder, responde: no tiene ninguna intención al respecto y continuarán los recortes salariales –a nuestro juicio- desmedidos y desproporcionados para quienes peores condiciones laborales tienen, dentro de nuestro Convenio. Así, a las maestras del primer ciclo se les va a seguir descontando casi el triple que a sus compañeras del segundo ciclo o de primaria, y a las TEJI y asistentes, les aplicarán el mismo descuento mensual en euros que al personal de secundaria, aunque ganan un 30% o 40% menos. *Kristau Eskola* no apoya los recortes pero los aplica.

Para justificar su negativa *Kristau Eskola* bucea en nuestra Web para buscar desacreditarnos, recordando una de nuestras señas de identidad: la escuela pública como eje vertebrador del sistema educativo vasco. Si hubieran seguido leyendo más abajo encontrarían también esta otra: *"Somos un sindicato del ámbito educativo y defendemos los derechos laborales y las condiciones de trabajo adecuadas de quienes trabajan en dicho sector. La lucha que venimos desarrollando contra la precariedad, en favor de la estabilidad, o el reparto del empleo y la salud laboral o la igualdad muestran cuáles son nuestras prioridades"*. Estamos muy orgullosos y orgullosas de lo que somos, un sindicato que denuncia las situaciones de injusticia que sufren los trabajadores y trabajadoras de la enseñanza, sean de la red que sean. Y eso es justamente lo que hemos hecho cuando hemos puesto en marcha la campaña de solidaridad con las compañeras de primer ciclo de educación infantil.

Y para realizar la campaña no hemos usado ningún dato falso o irreal, por mucho que *Kristau Eskola* lo deje entrever. Retamos desde aquí a quien sea a que busque en nuestro informe algún dato que no se corresponda con la realidad. Este sindicato ratifica que se han hecho recortes en todos los niveles, excepto en Administración y Servicios; nunca hemos dicho lo contrario. Antes de poner por escrito nuestras valoraciones, nos documentamos de manera adecuada con la administración y con la propia *Kristau Eskola*, que nos atendió muy correctamente. Reproducimos fielmente en nuestra revista la explicación que nos dieron y además la entendemos. Los brutales recortes de la financiación del 0-3, no tienen que ver con el cumplimiento de ninguna ley (de recorte de salarios) y sí con el contexto general de recortes sociales para reducir el gasto público al máximo, por encima de las necesidades de la población. Esos recortes han trascendido el marco de la enseñanza concertada alcanzando a la pública. STEE-EILAS también ha denunciado de manera reiterada la política de recortes en el gasto educativo y social de las diferentes administraciones. Recortes que sufren las familias, el alumnado y las y los trabajadores y que denunciamos también en la calle. (El último de ellos, el referido al contrato de relevo).

Precisamente por ello hablamos de **responsabilidades compartidas**. Y además de la administración incluimos las sindicales, aunque no en la línea de *Kristau Eskola*. A nadie se le escapa que la cruda realidad laboral de este colectivo va más allá de los recortes y tiene mucho que ver con la poca atención que ha recibido en la mesa de la negociación del Convenio.

Lo hemos dicho más veces pero lo repetiremos cuantas sean necesarias. Por mucho que se empeñe *Kristau Eskola* ni es incomprensible ni es contradictorio que utilicemos ese lenguaje (*responsabilidades compartidas*) aquí a pesar de no haber denunciado judicialmente a la administración en el tema de los recortes salariales. Es evidente que estos no son iniciativa de *Kristau Eskola* pero esta organización patronal no puede seguir jugando a dos bandas. Cuando STEE-EILAS denuncia ante los tribunales a las patronales, es porque son ellas las que firman nuestras condiciones laborales, por lo que se convierten en responsables directas de su cumplimiento. Si quieren poder contratar a su gusto, despedir (o no renovar) cuando quieran sin ninguna limitación... también deben responder por sus obligaciones salariales. De lo contrario, ¿para que negocia y firma un Convenio? ¿Qué modelo tramposo de negociación colectiva es ese?

¿Debe la administración responder subsidiariamente de la cuestión? STEE-EILAS ni entra ni sale en esa cuestión porque es algo que no nos atañe directamente a las trabajadoras y trabajadores. Nuestro sindicato no va a firmar ningún cheque en blanco en este sentido, aunque se nos hace difícil entender los niveles de irresponsabilidad a los que ha llegado la consejera de Educación en esta cuestión, que actúa como si la cosa no fuera con ella.

Por último, STEE-EILAS reitera su compromiso con la consecución de un sistema educativo vasco más justo y equitativo con unas condiciones laborales (no solo retributivas) homologadas.